

POZ-ARINDUZ

*Gaur goizean, igandez, elizan izan naiz. Meza tartean David-en salmu bat abestu dute. bi taldetan banandurik, bertako apaizak. Meza ostean aietatik bati eskatu diot kanta orren letra. Oso ederra da, neretzat **Jaunaren** sorkariz betea ikusten du lurra. Nik ere, etxera naizenean, aurreko landan bei-zaintzan, naiko doiñutsu kantatu ditut urrengo abapaldiok.*

Doiñu berezia

Nere anima, goretsazu Jauna!
gutziz aundi zaitut, ene Jaun eta Jainkoa!
Aundi ta eder zaude jantzia,
estalki duzu argia.

Ortzia oial-txabola bezela zabaldu duzu,
zure egoitzak ur-gaiñean eraiki dituzu.
Odeiak ezarri dituzu gurditzat,
aizean egaletan zabilta.
Aizeak dituzu aurretik Zu iragartzeko,
su bizkorrak zure zerbitzuko.

Ezarri duzu lurra bere orpoetan,
ez da kolokatuko mendeen mendetan.
Itxasoz bildu duzu soiñeko gisan,
urak mendi gaiffean kokatu ziran,

Zure zemaz joan ziran iges,
izutu ziren Zuk ostots egiñez.
Joan ziren mendietan gora, ibarretan bera,
Zuk eman zenien tokira.
Muga ipiñi diezu igaro ez dezaten,
berriro lurra estali ez dezaten.

Ibaiak sortu dituzu iturrietatik,
eta xirripan doaz mendi artetik.
Basa-pizti guztiei ura die ematen,
basastoei ere, egarria it dezaten.
Zeruko egaztiak bizi dira ur-ondoetan,
ematen dituzte beren txioak muskilletan.

Mendiak zure egoitzatik ureztatzen dituzu,
lurra zure eskuko emariz asetzen duzu.
Sortzen duzu belarra abereentzat,
landarea gizonarentzat;
atera dezala lurretik ogia.
giza-biotzarentzat ardo alaigarria;
aurpegia olioaz legundu dezan,
ogiak giza-biotza zuzpertz dezan.

Asetzen dira Jaunaren zugatzak,
Ark landaturiko Liban-go izaiak.
Aietan egiten dute kabi egaztiak,
aien adaburuetan du etxe amiamokoak.
Mendi garaiak basauntzendako,
arkaitzak azkonarren zulotako.

Illargia egin duzu noizaldia mugatzeko,
eguzkiak ordua badaki sartzeko.
Zuk illuna egin eta gana sortzean,
an dabilta basa-piztiak arontz-onontzean.
Leoikumeak orroka eize-billa,
Painkoari eskatzen diote beren jakia.

Eguzkia sortzean badoaz iges,
beren gordelekuetan dira etzaten.
Irtetzen da gizona bere lanera.
bere arlora, goizetik arratsera.

Bai ugari direla Zuk egiñak, Jauna,
zugurtasunez egiñak zearo,
lurra zure sorkariz batea dago.

Itxaso aundi zabal ortan narraztiak ugari,
bizidun txiki ta aundi.
Badabiltza itxasontziak ortik ara,
Lebiatan zuk egin duzu ango jostagarri dala,

Guzti oiek begira dauzkazu,
garai onez jana eman dezaiezun.
Zuk emanik artzen dute,
Zuk eskua zabalduz onez aserik daude,

Aurpegia gordetzen baduzu, ikara dira,
arnasa kentzen bacliezu, iltzen,
beren autsera biurtzen.
Izanik daude zure arnasa bialtzen baduzu,
lur-azala berrierazten duzu.

Bedi Jaunaren ospea sekuletan,
poztu bedi Jauna Berak egiñetan.
Lurrari begiratzen badio, au ikaratzon,
mendiak ikutzen ditu, ta kea sortzen.

Eresi egingo diot Jaunari, bizi naizeiño,
goratzarre nere ni naizeiño
Bekio atsegingarri nere leloa,
nere poza da Jainkoa.

Itzali bitez obendariak la rretik,
ez bedi gaiztorik gaurtik aurrera.
Nere anima, goretsazu Jauna! ».